

DISNEY AZALERATU ZUEN GREBA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Hollywood, 1923. Walter Elias Disneyk The Walt Disney Company sortu zuen. Sortzaileak etengabe gogorarazten zuenez, Hollywoodera eskuan kamera zahar bat zuela eta poltsikoan 40 dolar zituela iritsi zen. Eta 1937an, *Edurne-zuri* animaziozko lehen luzemetraiak izugarrizko arrakasta lortu zuenean, “amets amerikarra” gauzatu zuen, inguruan lantalde idilikoa bilduta. “Osaba Walt” esaten zioten langileek.

1928an konpainiak zazpi langile zituen eta 1937an, aldiz, ia mila. 1938an Screen Cartoonists Guild (SCG) animatzaileen sindikatua sortu zen eta, berehala, Herbert Sorrell ezkerreko sindikalista buru, egitura sendoa osatu zuen arautu gabeko jardunaren gehiegikeriei aurre egiteko. Baina “Osaba Waltek” balio paternalista zaharkituei eutsi zien, eta langileei sindikatzea debekatu.

Hala ere, hainbat langile, besteak beste Edurne zuriren amaordea, Goofy eta Gepetto pertsonaiak sortu zituen Art Babbitt marrazkilaria, SCGn sartu ziren. Disneyk bazter-nahasletzat eta boltxebiketzat jo zuen Babbitt eta 1941eko maiatzaren 28an kaleratu zuen, beste 16 langilerekin batera. Biharamunean hasi zen Disneyko marrazkilarien greba.

Sindikatuaren debekua eta kaleratzeak izan ziren grebaren piztaile, baina atzean askoz gehiago zegoen. Batetik, estudioa-



Disneyko grebaliariak protestan, 1941eko udaberrian.

LOS ANGELES TIMES / UCLA LIBRARY

ren hasierako politikari jarraiki, filmetako kredituetan ez zen animaltzaileen izenik agertzen, soilik Walt Disneyrena. Gainera, soldaten banaketa erabat desorekatua zen eta irizpide subjektibotatik oinarrituta zegoen. *Edurne zuri*-ren arrakastari esker, langileei egindako ordu estrak ordainduko zizkiela agindu zien. Baina irabaziak estudio berriak eraikitzea bideratu zituen azkenean.

Gutxi gorabehera langileen erdiak bat egin zuten grebarekin, baina enpresaren jardura erabat gelditzea lortu zuten. Disneyren jarrera oldarkorrek ez zuen egoera hobetzen lagundu. Azkenean, greba piztu eta bost astera, Disneyk gobernu federalaren bitartekaritza

onartu zuen eta atzerrira alde egin zuen. Grebaren amaieran, kaleratutako langileak itzultzea, sindikatzeko eskubidea eta soldaten igoera lortu zuten. Baina handik aurrera Disneyk lan-baldintzak nabarmen gogortu zituen eta grebaliari gehienek enpresa uztea lortu zuen. Epe luzean, bere burua garaitzat jo zuen, “endredatzaile eta komunista arriskutsuak uxatzea eta konpainia garbitzea” lortu zuelako.

Eta McCarthyren “sorgin ehizaren” babesean, etxe barruko “garbiketa” kanpora zabaltzen ere ahalegindu zen. Besteak beste, iraganean hainbeste miresitako Charles Chaplin salatatu zuen Jardura Antiamerikarren Batzordean. ■



AMR NABIL

Tutankamonek ez du gehiago ematen

Nicholas Reeves egiptologo ingelesak teoria hau proposatu zuen 2015ean: Tutankamon faraoi gaztearen hilobiko mendebaldeko eta iparraldeko hormetan (argazkian) ateen arrastoak daudela eta ate horien atzean biltegi bat eta Nefertitiren hilobi-ganbera ukitu gabea egon zitezkeela. Bada, Turineko unibertsitateko aditu talde batek georradar

bidez aztertu ditu horma horiek eta ikerketaren buru Franco Porcelliren hitzetan “hormez haratago ganbera ezkurik ez dagoela ondorioztatu dugu”. Eta Egiptoko instituzioek ondorioa berretsi dute. Albiste iturri agorrezina izan da KV62 hilobia 1922an aurkitu zutenetik, baina oraingoan albisterik eza izan da albiste. ■